

Oscar Sainz, EHUKo HiTZ Zentroko ikertzaile gipuzkoarra, Estatuko Informatikako ikertzaile gazte onenen artean saritua

- Informatikaren arloko estatu-mailako sari nagusietako bat jaso du hizkuntzaren prozesamendu automatikoan eta adimen artifizialean (AA) egindako ekarpenengatik. Aitorpen horri gehitu behar zaio aurretik adimen artifizialari buruzko doktorego-tesi onenaren saria ere eskuratu izana.
- EHUKo Hizkuntzaren Analisi eta Prozesamenduan doktorea da, eta haren ikerketek aukera ematen dute adimen artifiziala datu gutxi dauden eremuetan ere aplikatzeko, hala nola baliabide urriko hizkuntzetan, euskara kasu. Horretarako, oso datu gutxirekin ikasteko gai diren AA algoritmoak garatzen ditu.

Donostia, 2026ko uztailaren 17a.– Oscar Sainz Jiménez (Lasarte-Oria, 1997), [EHUKo HiTZ Hizkuntza Teknologia](#)ko [Euskal Zentroko](#) ikertzailea, SCIE–BBVA Fundazioaren 2026ko Ikerketa Sarietako batekin saritu dute. Informatikaren arloan **Espainiako aitortzarik garrantzitsuenetako bat da. 10.000 euroko zuzkidura duen sariak ikertzaileen eta erakundeen bikaintasun zientifikoa aitortzen du.**

Epaimahaiak Oscar Sainzi, EHUKo Hizkuntzaren Analisi eta Prozesamenduan doktore eta informatika-ingeniariari, Informatikako Ikertzaile Gazteak kategorian eman dio saria, baliabide gutxiko ikaskuntzan egindako ekarpenengatik, bereziki informazio-erazketaren alorrean; baita datuen kutsaduraren eta hizkuntza-eredu handien (LLM) garapenaren, erabileraren eta ebaluazioaren arloan egindako ekarpenengatik ere, besteak beste Latxa bezalako ereduen kasuan.

Aitorpen honek aurretik ere saritua izan den ibilbide zientifikoa indartzen du. Izan ere, 2025ean Adimen Artifizialerako Espainiako Elkartearen (AEPIA) Doktorego Tesi Onenaren Saria jaso zuen, eta nazioarteko hainbat aitortza ere eskuratu ditu Association for Computational Linguistics (ACL) erakundearen eskutik, hizkuntzaren prozesamendu automatikoaren arloko nazioarteko elkarre zientifiko nagusiaren aldetik.

SCIE–BBVA Fundazioaren Ikerketa Sariak hamargarren edizioa ospatzen dute aurten, eta urtero informatikaren arloan nabarmendu diren ikertzaile eta erakundeak aitortzen dituzte. Informatikako Ikertzaile Gazteak kategorian, epaimahaiak kalitate zientifiko handia, berrikuntza-gaitasun nabarmena eta nazioarteko proiektzioa duten doktorego tesiak saritzen ditu.

Sainzen ikerketa adimen artifizialaren gaur egungo erronka nagusietako bati egiten dio aurre: sistemak ikasteko gai izatea, nahiz eta datu erabilgarriak oso urriak izan. Horretarako, oso datu gutxirekin ikasteko gai diren AA algoritmoak garatzen ditu; funtsezko ezaugarria baita adimen artifizialaren erabilera informazio-bolumen handirik ez daukaten eremuetara zabaltzeko. “Kontraesankorra dirudien arren –adierazi du–, posible da datu gutxi dituzten atazak edo arazoak ebazteko sistemak garatzea, datu multzo handiak dituzten beste ataza batzuetatik ikasitako ezagutza aprobetxatuz”.

Lan-ildo horrek aplikazio zuzena du askotariko eremuetan; izan ere, haren esanetan, “Adimen artifizialarren balizko erabilera gehienetarako datu eskasia dago”.

“Sari hau jasotzea urte hauetan egindako lanaren aitortza garrantzitsua da, eta eragin sozial handia duen eremu batean ikertzen jarraitzeko motibazio iturri ere bada. Gainera, pozgarria da HiTZen lantzen dugun ikerketa-ildo bat aitortzea; izan ere, gure helburua da adimen artifiziala erabilgarria izatea datu gutxi dauden testuinguruetan ere”, azpimarratu du Oscar Sainzek.

HiTZi buruz: Aitorpen honek beste behin ere agerian uzten du HiTZ zentroan garatzen den ikerketaren maila. Hizkuntzaren teknologien eta adimen artifizialaren arloan nazioarteko erreferentziazko zentroa da HiTZ, eta hizkuntza-ereduak, baliabide linguistikoak eta AA sistema aurreratuak garatzen ditu. Bereiziki arreta jartzen du baliabide urriko hizkuntzen sustapenean, hala nola euskararen kasuan, eta sortutako ezagutza gizartera eta enpresa-sarera transferitzean.

Oscar Sainz, investigador guipuzcoano del Centro HiTZ de la EHU, reconocido entre los mejores jóvenes investigadores en Informática del Estado

- Recibe uno de los principales galardones estatales en informática por sus contribuciones al procesamiento del lenguaje natural y la inteligencia artificial (IA).
- Doctor en Análisis y Procesamiento del Lenguaje por la EHU, su investigación contribuye a que la IA pueda aplicarse también en ámbitos donde apenas existen datos disponibles, como ocurre con lenguas con pocos recursos, entre ellas el euskera. Para ello, desarrolla algoritmos de IA capaces de aprender con muy pocos datos.

Donostia-San Sebastián, 17 de julio de 2026.- Óscar Sainz Jiménez (Lasarte-Oria, 1997), investigador de HiTZ, [Centro Vasco de Tecnología del Lenguaje de la Universidad del País Vasco \(EHU\)](#), ha sido distinguido con uno de los Premios de Investigación Sociedad Científica Informática de España (SCIE)-Fundación BBVA 2026. Se trata de **uno de los galardones más prestigiosos de España en el ámbito de la informática**. Dotado con 10.000 euros, **reconoce la excelencia científica de investigadores y entidades**.

El jurado ha concedido a Óscar Sainz, doctor en Análisis y Procesamiento del Lenguaje e ingeniero informático por la EHU, el premio en la modalidad Investigadores Jóvenes en Informática por sus aportaciones al aprendizaje con pocos recursos, especialmente en el campo de la extracción de información; así como por sus aportaciones a campos como la contaminación de datos y al desarrollo, uso y evaluación de grandes modelos de lenguaje (LLM) como, por ejemplo, Latxa.

Este reconocimiento se suma a una trayectoria científica que ya había sido distinguida con el Premio a la Mejor Tesis Doctoral de la Asociación Española para la Inteligencia Artificial (AEPIA) en 2025 y con varios reconocimientos internacionales de la Association for Computational Linguistics (ACL), la principal sociedad científica internacional en procesamiento del lenguaje natural.

Los Premios de Investigación SCIE-Fundación BBVA celebran este año su décima edición y reconocen anualmente a los investigadores y entidades más destacados en el ámbito de la informática. En la categoría Investigadores Jóvenes en Informática, el jurado distingue tesis doctorales con una destacada calidad científica, capacidad innovadora y proyección internacional. La entrega de los galardones tendrá lugar el 4 de noviembre en Madrid.

La investigación de Sainz se centra en uno de los grandes retos actuales de la IA: conseguir que los sistemas sean capaces de aprender, incluso cuando apenas existen datos disponibles. Para ello, desarrolla algoritmos de IA capaces de aprender con muy pocos datos, aspecto clave para extender el uso de la inteligencia artificial a ámbitos en los que no existen grandes volúmenes de información. "Aunque pueda parecer contradictorio -señala-, es posible entrenar sistemas capaces de realizar tareas o resolver problemas para las cuales apenas se disponen de datos de entrenamiento, aprovechando el conocimiento aprendido de tareas para las que sí se disponen de grandes conjuntos de información".

Esta línea de trabajo tiene una aplicación directa en numerosos ámbitos. ya que, según explica, "para la mayoría de los posibles usos de la IA existe escasez de datos".

"Recibir este premio supone un importante reconocimiento al trabajo realizado durante estos años y una motivación para seguir investigando en un ámbito con un gran impacto social. Además, es una satisfacción que se reconozca una línea de investigación en la que trabajamos desde HiTZ para que la IA pueda ser útil también en contextos donde apenas existen datos disponibles", subraya Óscar Sainz.

Sobre HiTZ: Este reconocimiento supone un nuevo respaldo a la investigación que desarrolla el Centro HiTZ, centro de referencia internacional en tecnologías del lenguaje e inteligencia artificial. HiTZ trabaja en el desarrollo de modelos de lenguaje, recursos lingüísticos y sistemas de IA avanzados, con especial atención al impulso de las lenguas con menos recursos, como el euskera, y a la transferencia de ese conocimiento a la sociedad y al tejido empresarial.//